

Jorge Edwards idazle txiletarrak irabazi du aurten Cervantes Saria

«Haren nortasun aberatsak idazle unibertsal bihurtu du», dio epaimahaiak

Erredakzioa / Donostia

Jorge Edwards idazle txiletarrak irabazi du aurtengo Cervantes saria, gaztelarazko literatura saririk garrantzitsuenak. la berrogeita hamar urteko ibilbidean hainbat arlo ukitu ditu: narrazioa, memoriak, eleberria, biografia, saiakera, artikulua, kronika... Haietan azaldutako «maisutasuna» nabarmendu du epaimahaiak.

BOST bozketa egin ondoren hautatu zuen epaimahaiak Jorge Edwards (Santiago, 1931), «haren literatur merezimenduak saritzeko». Hala adierazi zuen Victor de la Concha Espainiako Hizkuntzaren Akademiako presidentek. Eztabaida luzatzearen zergatia azaldu behar izan zuen ondoren De la Conchak. Antza denez, aurreko urteetan saria emateko orduan kontuan hartu dute idazle amerikarrak eta espainiarrak txandakatzea; aurtengoa, ordea, irizpide nagusi eta bakarra hautagai bakoitzaren literatura merituen zitezen idazle ezagunak ziren finalistak: Mario Benedetti, Caballero Bonald, Juan Goytisolo, Pedro Marset eta Francisco Umbral besteak beste.

Edwards saritzeko arrazoi nagusiak aipatu zituen epaimahaiak. Batetik, idazle txiletarraren ibilbide luzea, ia



RAMON CASTRO / EFE

Jorge Edwards idazle txiletarrak Cervantes sariaren 15 milioi pezeta jasoko ditu.

50 urtekoa. Bestetik, «maisutasunez landutako jeneroen aniztasuna». Eleberria, ipuina, memoriak, biografia, saiakera, prentsa artikulua eta kronika landu ditu Edwards, eta denak «modu bikainean», De la Conchak adierazi zuenez.

Txileko kronista

Azkenik, Edwardsen nortasunaren «aberratasuna» nabarmendu du epaimahaiak. «Txileko errealitate

sozio-politikoarekin konpromisoa agertu du idazle honek. Hala ere, idazle unibertsala dela deritzogu eta ezin dela soilik idazle hispanoamerikar bezala sailkatu», esan zuen De la Conchak.

Literaturan ezezik, diplomazian ere ibilia da Edwards. Besteak beste, Txileko enbaxadorea izan zen Habanan, 1970etik 1973ra, Salvador Allenderen agintaldian. Pinochetaren garaiko gobernuak, oster, kargutik kendu zuen eta Bartzelonan

erbestera behar izan zuen Edwardsek.

Txileko gizartearen gainberrak hainbat lanetan islatu du Edwardsek: *El patio*, *Gente de la ciudad*, *Las máscaras*, *Temas y variaciones* ipuin liburuetan adibidez; eta *El peso de la noche*, *Los convidados de piedra*, *El museo de cera* eta *La mujer imaginaria* eleberrietan kasu. *Persona non grata* memoria liburua eta *Adios Poeta*, Pablo Nerudaren biografia ere lan aipagarriak dira.

Angel Lertxundi:
«Txinakoaren moduko harresi baten barruan dago sartuta euskara»

■ 'Iberiako hizkuntzak' topaketaren aurkezpenean parte hartu zuen idazleak

Europa Press / Madril

ANJEL LERTXUNDI idazleak *Iberiako hizkuntzak* izeneko topaketaren aurkezpenean parte hartu zuen atzo Madril. Bertan esan zuenez, euskara «Txinakoaren moduko harresi baten barruan dago sartuta» eta horrek eragozten du euskaraz egiten dena jende guztiak ez jasotzea.

Alde horretatik, Espainiako Estatuan hitz egiten diren gainontzeko hizkuntzek baino zailtasun handiagoak ditu euskarak, haiek latinerazko jatorria dutelako, eta horrek ulermenaren errazten du.

Dena dela, idazle oriotarraren iritziz euskararen ezagutza benetan zabalduta eta aurreratu da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikari esker, gero eta gazte gehiagok irakurtzen eta hitz egiten baitute euskaraz.

Bestetik, itzulpenaren arloan eman diren aurrerapausoak ere nabarmendu zituen Lertxundik, eta adibide gisa *Madame Bovary* euskaratua izatea aipatu zuen. Hala ere, itzulpenen sisteman hobekuntzak egin behar direla adierazi zuen Anjel Lertxundik topaketaren aurkezpenean.

musikaren kutxa			
ABENDUAK 16 ABENDUAK 17 ABENDUAK 18			
andoain	JULIA LEON "Sefardien legatua" Urigain Kultur Etxean 20,00etan	JABIER MUGURUZA "Fiordoan" Urigain Kultur Etxean 20,00etan	BIDINTE "Kumura" Urigain Kultur Etxean 20,00etan
	JABIER MUGURUZA "Fiordoan" Antonio M ^o Labaien Kultur Etxean 20,15etan	BIDINTE "Kumura" Antonio M ^o Labaien Kultur Etxean 20,15etan	JULIA LEON "Segardien legatua" Antonio M ^o Labaien Kultur Etxean 20,15etan
tolosa			



XOUSE SIMAL

Andima Ibinagabeitia hizpide. Deustuko Unibertsitateak Andima Ibinagabeitia, erbesteko euskal idazlea izenburupeko mahaingurua aterpetu zuen atzo eguerdian. Ekitaldiaren aurretik *Enseiukarrean* aldizkariaren 14. zenbakia aurkeztu zuten Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak.